

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



Maskarak, katamaluak, maskarillak eta katamalotxuak

Oñatin aspalditxotik ezaguketan dittugu Korpus egunian **apostolu bizidunak** eta herriko jaixetan **txorimalo eta jigantiak**; batzuk oso serixuak eta jolasgurakuak bestiak. Baiña, hain desbardiñak izan arren, badakoi zerbaitetan antza: euren jazkeran **maskarak** elementu oso inportantiak dira. Korpuztietako prozosiñuan urtetan dauen hamabi apostoluak, Jesukristok eta San Migelek maskara estu batekin estari, tapaitten daue arpegixa, sarritan bero galanta aguantauaz. Txorimaluen disfrazta nasaixagua da, buruhaundixak dira, baiña antxintxiketa asko egin bihar izaten dauenez, honeik be izardi majuak botaten dittue.

Eta **katamalu** zergatik? Gehixenok entzunda eukiko dozue askotan erdi-kantau izan dogun zerako zera: **Txorimalo! Katamalo! Tirikititi! Taukiri! Zeiñeri? Txorimaluari!** Kostau xakun berba horren esanguria harrapaittia. Baiña halako batian konturatu giñan, R. M. Azkuek bere hiztegi famauan dakarrenaren bittartez, **katamalo** “*máscara* edota *persona disfrazada*” zala Oñatin eta Zegaman. Hori dala eta, berba barri bat asmaittia pentsau dot: orain, zoritxarrez, hain modan jarri xakun **maskaralliaren** sinonimo lez, **katamalotxua** be eballi geike. Luzetxua da, bai, baiña politta, ezta?

Aurten, dakitzue, eztozu Korpus egunian prozosiñurik, dantzaririk eta santu bizidunik ikusiko. Noizian behin gertatu izan da, eguraldi txarraren eragiñez, baiña gutxittan. Eta txorimaluak? Auskalo... Atzeko kaleko jaixetarako eta San Migeletarako egoeria oneratuko ahal da! Baiña nork jakin... Bixen bittartian, **geu ibilliko gara txorimalo egindda**, katamalotxo eta guzti!

Korpusetako argazkixa Irantzuk Elortzak ataratakua da eta txorimaluenak berriz, Iñigo Arregik. Eskerrik asko bixoiri.